

Noaua !!



50 urte bete ditu
Jakin aldizkariak



Perretxiko ugari
udazkeneko lehen kolpean

Etorn ezagutzera 

HARATEGIKO ERREKETAHARRA
 BAJERREKO TXAKAL URRUSA, BEHI
 TXULITAK, EINEKO ASKUNKA ETA
 ETXEREN EGINDAKO PRODUKTUEN
 ALKATZA ZABALA.

URDAITEGIKO ERREKETAHARRA
 ONDU ETA EGOSITAKO
 URDAIAZPIKAK, EESTAKO ETA
 KANFORO-GRIZEN URDAITEGIKO
 PRODUKTUEN ALKATZA ZABALA.

FRUTADENDA ERREKETAHARRA
 EESTAKO BAKAZKO ETA PILTEN, EESTAKO
 PAREGABEEL, DEPAK KALITATE
 HANDIENAKEN SORBITZU HOBETU-
 SAREKIN ETA NEURRIKOR PREZIOETAN.

Zubiaurrena, 2 • 943 36 55 81 • 40170 Urrutzi

leapaindegi 

Egunero Irekita
Ordutegia : 9.00 - 19.00

✓ **Laser depilazioa**

Zubiaurrena 4, **USURBIL** ☎ 943 361 951

liburudenda **LAURROK**

 **orain**
FOTOKOPIAK
KOLORETAN

fax zerbitzu publikoa •
 enkuadernaketak •
 plastifikazioak •
 inprenta lanak •
 kautxozko zigiluak •

Alperro Buru 1 • Tel./Faxa: 943 36 34 48

Badok Amairu !!

Bakartxo Iguaran: "Silvio Rodriguez gustuko dut"

Irakurri gabe ezin daiteke bizi. Liburu bat aipatzekotan, Igerabideren "Hauts bihurtu zineten". Bakartxo Iguaran liburutegi-ko langileak gomendatua.

1. JAKIRIK GOGOKOENA.

Pasta.

2. OHITURA TXARREN BAT.

Maniatika samarra naiz.

3. ZER GORDETZEN DUZU SAKELEAN?

Normalean ezer ez; dena poltsan eramaten dut.

4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?

Txori batean.

5. ZERI DIOZU BELDURRA?

Sufirimenduari.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.

Miretsi ez, baina gustuko norbait aipatzekotan, Silvio Rodriguez.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...

Irakurri gabe.

8. EGINDAKO EROKERIA HANDIENA.

Nahiko arrazionala naiz, eta nire indarrak neurtzen ditut.

9. LIBURU BAT.

"Hauts bihurtu zineten", Juan Kruz Igerabiderena.

10. FILM BAT.

Etzekoa eta oso duina iruditut zaidalako, "Kutsidazu bidea Ixabel".

11. LEKU BAT.

Mulisko gaina. Leku zoragarria.



Onyi mendiaren magalean dagoen balkoi naturaletik bailara osoa ikus daiteke.

12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.

Urdaigako plaza inguruak.

13. URTARO BAT.

Udaberria eta uda.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Aritz Gorriti.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA! IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

ERRAUSTE PLANTAREKIN BUELTAKA **5. OR.**

PERRETXXIKO GARAIA **6. OR.**

JAKIN ALDIZKARIAK 50 URTE BETE DITU **8. OR.**

DONOSTIAKO BIGARREN INGURABIDEA **9. OR.**

LUISMARI ORMAETXEAREKIN SOLASEAN **10. OR.**

ALBISTE LABURREN TARTEA **12. OR.**

NOAUA! TXIKI **14. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



AINHOA AZPIROZ

Phonogaitzak

Normalean gauza bitxiei buruz egiten dituzten ikerketei ez diet sinesgarritasun handirik ematen. Adibidez, egunean zortzi atun lata jaten dituztenak matematiketan hobeak direla. Edo finlandiarrek hungariarrek baino gehiago ureztatzen dituztela loreak. Edo 30-40 urte bitarteko emakumeak 40-50 urte bitartekoak baino gehiago ikaratzen direla txingurriekin. Are gehiago, horrelako ikerketak egitea dirua txorakeriatan gastatzea dela iruditzen zait.

Halere, orain dela gutxi telefono mugikorren ondorioei buruzko ikerketa baten berri izan dut eta kezkatuta gelditu naiz. Telefono mugikorra asko erabiltzeak norberarengan ondorioak izateaz gain, gizakiarengan ere edukiko omen ditu. Alegia, orain dauzkagun trebezia edo gaitasun batzuk galdu egingo omen ditugu. Hanketako behatzekin gertatu zaigun antzera; lehen zuhaitzetan gora igotzeko erabiltzen ziren eta gaur egun funtzio hori galdua daukagu.

Ba telefono mugikorrarekin antzekoa. Ikerketak ondorio hauek aipatzen zituen:

- Memoria galduko dugu: lehen telefono zenbaki asko buruz ikasten genituen: 36..... Gaur egun telefono mugikorrak zenbakiak bertan gordetzeko aukera ematen du. Ez dugu markatu ere egin behar. Izenari eman eta kito. Beraz, memoriaren lanketa, zero.

- Bista eta orientazio gaitasuna galduko ditugu: lehen jendez betetako leku batera iritsi (plaza, hondartza, frontoia, jaialdi bat...) eta alde batera eta bestera begiratzen

genuen gure lagunak edo dena delakoa topatzeko. Arroparen kolorea, pertsonaren altuera, soinu konkretu bat... horrelako erreferentziak erabiltzen genituen. Orain begiratu ere egin gabe, mugikorra atera eta "non zaude?". Telefonoz bestaldera dagoenak ematen dizkigun pistak jarraitzen ditugu: "aurrerago, ikusten al duzu bazterreko kartela? Ba, hori baino pixkat bat eskuinerago...". Eta gu, begiak itxita bageunde bezala, muturraren aurrean eduki arte ezer ikusi gabe.

- Ustekaberako sentsazioa galduko dugu: deitzen digunaren zenbakia hor agertzen da mugikorrean, eta beraz, badakigu nor ari zaigun deika. Gainera, gaur egun, zenbakiari begiratu gabe ere, deitzen digun bakoitzari musika desberdina jar diezaiokegu. Horrek sorpresa efektua desagertarazten du eta gizakiaren burmuinaren garapenean eta sozializazioan eragina omen du.

- Hitz egiteko jarioa galtzeko arriskua dugu: gaur egun mugikorra SMSak bidaltzeko izugarri erabiltzen da. Alegia, hitz egiteko baino gehiago idazteko erabiltzen da. Horrek ahoz komunikatzeko gaitasuna gutxitzea dakar.

Ez dakit ikerketak aipatzen dituen ondorioak esajeratuak diren edo ez. Askotan koberturarik gabe edo bateria bukatuta gelditzen garenean ere, kotxeak gasolinarik gabe bezala sentitzen gara. Horregatik, agian egia da mugikorraren menpe gaudela eta ohitura batzuk aldatu egin ditugula edo aldatzen ari garela. Denborak esango du nora iritsiko garen.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas

Edalontzi berrerabilgarriak eskuragai

San Markoseko mankomunitateak Edalontzi berrerabilgarriak buruzko kanpaina abian jarri du. Eremu honen barne, jende asko biltzen diren ekimenetan euro baten truke edalontzi bat erosi eta erabili ostean edalontzia itzuli daiteke. Garbitu ondoren, berrerabiltzeko. Dagoeneko Oiarzungo Kilometroak jaialdiko esperientzia dute. Prentsaurrean mankomunitateko ordezkariak arrakastatsutzat jo zuten, Oiarzun inguruak inoiz baino garbiago baitzeuden. Mankomunitatearen eremuko udalerrri eta taldeek edozein jaialdirako eska ditzakete edalontziok.



Errauste planta Zubietan jartzeko proposamenarekin bat dator Odon Elorza

Foru Aldundiak errauste planta Zubietan Gainan kokatzeko pasa den aste hasieran egin dako proposamenak zeresana ematen jarraitzen du. Donostiako alkate Odon Elorzak duela egun gutxi eskaini zuen prentsaurrekoan, onartu egin zuen Aldundiaren proposamena. Erakundeak aurkeztutako informea onartu beste aukerarik ez zuela izan zioen.

Galtzen ari den borroka gisa ikusten du auzia, bere hitzetan, “gustuko ez dugun zaborren tratatzeko sistema ezartzearen aurkako borroka”. Horren haritik, Donostiako udalak gehiengo demokratikoa errespetatzeagatik trabarik ez duela jarriko iragarri zuen.

Auziari irtenbidea aurkitu asmoz, politikoki behar adina babes jaso ez duten alternatibekin jarraitzea ez dela kontua erantsi zuen.

Hala ere, Zubietako beste gunea, Abalotzeko gunea, ez alboratzea ere eskatu du. Elorzaren esanetan, gune horretan eraikitzeak “ingurunean eragin arren, biztanle guñeekiko bi kilometroko distantzia bermatuko bailuke”.

Bestelako oztoporik ere ikusten dio Donostiako alkateak Aldundiak proposatu berri duen guneari. Zubietako Gainan errauste planta eraikitzeak Martuteneko kartzela bertan kokatzea oztopatuko zuela adierazi zuen. “Kartzela erraustegiaren ondoan kokatzea guztiz inmorala dela irudituko litzaiguke”, zehaztu zuen Elorzak.

Erraustegiak etorkizunean berme guztiak betetzea exigitzeko eta ahal den zabor kopururik txikiena erretzeko birziklatzea eta bio-lehortze termikoa bultzatzeko konpromisoa hartu zuen.

Egun gutxi barru, gai honen inguruko azken erabakiaren berri emango du ezohiko bilkura batean.



Luis Mari Ormaetxea, Usurbilgo alkatea

“Hiri hondakinen arazoak soluzio urgente baten premia du”

NOAU! Errauste planta ezartzeko, Zubietan Gaina izeneko kokagunearen alde azaldu dira mankomunitateak, Foru Aldundia eta Odon Elorza. Erabaki hau nola hartu du zuk zuzentzen duzun udal gobernuak?

Luis Mari Ormaetxea. 2004an, udalak posizionatu behar izan zuenean, herritar asko gerturatu ziren udalbatza plenora eta eztabaida luzeak izan ziren herritarrekin zuzenean. Esan behar da Eusko Alkartasunako bost zinegotziok bakarrik agertu ginela pleno hartara. Eta hiru ordu luzez aritu ginen gure posizionamendua argitu edo azaldu nahian. Beste gauza bat da, 2006ko udal gobernuaren iritzia zein den. Une honetan, EAJ eta EAren artean osatutako udal gobernuak ez du baloraziorik egin oraindik.

Modu pertsonalago batean, nik gogoeta batzuk egin nahi ditut. Oso garbi utzi behar da soluzio beharra oso urgentea dela. Erakundeek erabakiak

hartzen ez badituzte, 2007ko urtarrilaren 1ean Usurbilgo hiri hondakinak nora eraman ez dugu izango. Herritar guztiok irtenbide bat behar dugula kontziente izan behar gara. San Markos itxi egingo da. Hara ezingo da ezer eraman. Urtarrilaren 1etik aurrera, ea zer egingo dugun sortzen ditugun hondakinekin.

Nire iritziz, arazoa ez da errauste planta bat eta zer modutakoa izango den argitzea. Birziklatzea, berrerabiltzea, gutxitzea, konpostatzea eta hori guztia egin ondoren, azkenean geratzen den portzentaje handi horrekin zer egin behar dugu? Erre edo pilatu? Erre egingo dugu edo zabortegi batera bota behar al dugu? Hori da eztabaida. Zeren erraustegiari ezezkoa esaten ari bagara, zabortegi bat sortu behar dugula esaten ari gara. Orduan, galdera egiten dut ea zein herritan eta nork nahi duen zabortegi bat etxe ondoan.

Aspaldiko kolpe handiena

Onddoak biltzeko garaia bizi dugu. Oso ondo dakite hori Santuenerako Arrospidekoek. Duela hamabost urtetik hona, onddoak eta xixoriak jaso, garbitu eta denda zein jatetxeetan banatzeaz arduratzen dira. Bisitan izan ginen egunean, 600 kilo onddo jaso zituzten. Baina delikatuia da onddoa. Behin menditik jaso eta gero, bizi-iraupen gutxi duena. Ezin denak egun berean jatetxe eta dendetan partitu eta horregatik kilo asko izoztu egiten dituzte, onddo garaia amaitzen denean banatu ahal izateko.

Horrelako kolperik ez zen aspaldi ikusi. Lanean topera dabilta egunotan Arrospiden. Lehengo astean, ordu erdiz izan ginen Santuenera duten lantokian. Telefonoa jo eta su ari zen. Ezin elkarrizketarako lana utzi eta onddoak garbitu bitartean erantzun zituzten NOAUA!k eginiko galderak.

Euskal Herria, Galiza, Gaztela-Leon eta Portugalgo onddo-biltzaileek badakite nola iritsi Arrospide sendiaren txokora. Maiz ailegatzen dira Santuenera izozkailudun autoak. Zer da Arrospiden egiten dutena? Aiora Arrospidek azaldu digunez, “menditik jaso bezala iristen zaigu onddoa. Hemengo onddo-biltzaileek garbituta ekartzeko ohitura dute. Nafarroatik datozenak, bereziki”. Onddoari lurra kentzea da Arrospidetarren zeregin nagusia. Behin lan hori eginda, itxuroroso aurkeztu behar dituzte jatetxe eta dendetan.

Gehien jaten dena, onddoa

Onddoa da bereziki jasotzen dutena. Aioraren ama Isabelek azaldu digunez, “beste toki batzuetan onddo-klase gehiago jateko ohitura dago. Baina hemen batez ere onddoa, xixoria eta gibel-urdira. Eta gehien gehiena, onddoa”. Azkenean, kontsu-



IRUDIAN, AIORA ARROSPIDE BERE AMAREKIN HAI EI EKARRITAKO ONDDOEKIN LANEAN BURU-BELARRI, SANTUENERA DUTEN EGOITZAN.

mitzaileek eskatzen dutena da Arrospidekoek jasotzen dutena.

Onddoa jaso eta berehala banatu behar da. Bestela galdu egiten da. Donostiako Alde Zaharreko jatetxe askotan aurkituko dituzue Arrospideko onddoak. Baita inguruko denda askotan ere. Madrilgo euskaldun sukaldarien jatetxe askotara ere Arrospidetik bidaltzen dira onddoak.

Arrospide izenarekin ere badira kontserban gordetako onddoak. Baina Isabelek esan digunez, “Nafarroako enpresa batek enbotatzen ditu gure onddoak. Gauza delikatuia da eta hori profesionalen esku utzi behar da”, aitortu digu Isabelek.

Noizbait arazorik izan ote duten galde egin diegu baina inoiz ez dute ezustekorik izan.

Aiorak dioenez, “herritarrek ere etortzen dira hona onddoak erostera. Baina gehiago dira onddoak saltzera hurbiltzen zaizkigunak”. Izan ere, asko dira gure artean onddoa biltzeko ohitura dutenak. Dena den, dendak

eta jatetxeak dira Arrospidekoen bezero nagusiak.

Iraila erdialdetik atsedean gutxirako tartea izan dute Santuenerako lantoki honetan. Aiorak azaldu digun eran, “Galizan hasi zen lehenbizi. Orain hemen asko dagoenez, egun hauetan hemen bildutakoarekin lan egingo dugu bakarrik”. Zamoratik, Portugaldik ere ari dira deika, onddoa kiloka eskainiz. Baina Euskal Herrian bildutakoarekin nahikoa eta gehiegi dute. Kolpea pasatzen denean, akaso hasiko dira berriz ere kanpoko onddoa hartzen.

Perretxikoena ez da garai honetako lana bakarrik. Urte osoan aritzen dira lanean. “Onddoa biltzeko garaia amaitzen denean, kongelatuarekin egiten dugu lan. Jatetxe askok nahia go dute. Izoztutako onddoak garbituta eta laminatuta banatzen ditugu eta”, azaldu digu Aiora Arrospidek.

Perretxikoak, ofizio eta afizio

Onddo garaia da honakoa. Xixoriarena, aldiz, udaberria. Orain Arrospiden bizi duten eromenaren antzekoa da udaberrikoa. Bisitan izan ginen egunean gainezka zeuden Santueneko lantoki honetan. Isabelen hitzetan, “hau ez da normala. Egunean 300 kilorekin nahikoa dugu. Baina atzo 600-700 kilo jaso behar izan genituen. Hona etortzen dira eta ezin dituzu generoarekin etxera bidali; onddoa azkar galtzen baita. *Kongelatu ezazue* esaten digute, baina gure mugak ere baditugu”.

Batzutan egoitza txiki geratzen zaiela ere aitortu digute. Duela sei urte Osasun Sailak ezarritako baldintzetara egokitu behar izan zuten lantokia.

Izozkailu bi eta onddoa garbitzeko gela nagusi batez osatzen da lantokia.

**“Onddoa, ez galtzeko,
2-3 gradutan egon behar du”**

Onddoa delikatu da. Jaso eta tenperatura hotzean gorde behar da, bestela galdu egiten da. Isabelek esan digunez, “izozgailuetan ekartzen digute, onddoak 2-3 gradutan egon behar baitu”.

Afizioa ere badute. Aiorak astelehenetik larunbatera egiten du lan. Aste osoa onddo artean pasa eta gero, igandean jaiki eta mendira abiatzen da onddo bila. Ofizioa eta afizioa bat dira Aiorarentzat. “Lehengo astean 5 kilo ekarri nituen. Aste osoan, onddoak biltzen pasatzen dut baina mendian ibili eta onddoak jasotzea ere asko gusatzen zait”.



EGUNEAN 600-700 KILO JASO
IZAN DITUZTE ARROSPIDEKOEK.

Perretxikoak eta gaztainak, udazkeneko fruiturik preziatuenak

Urtero errepikatzen den “erromesaldia” da perretxikuzale eta gaztainzaleena. Ibilalditxo egin eta naturaz gozatze aldera joaten dira mendira, saskia betetzeko ilusioarekin, noski. Bilketa segurua eta eraginkorra izan dadin, perretxikoak osorik biltzea komeni da. Perretxikoak bidean honda ez daitezen, hosto, goroldio edo belarretan bil daitezke, kolpeak arintzeko. Etxera iristean, jatekoak eta gorde edo ikertzekoak bereiztea izango da lehen lana.

Jateko badira, modu erraz batean prestatzea izaten da egokiena, hobeto dastatzen baita perretxikoen zaporea. Gehienetan hankak bota eta txapelak bakarrik jaten dira: zatitu eta zartaginean edo parrilan jarri oliba olio edo gurin apur bat eta gatzarekin.



EGUN HAUETAN, SASKIA BETETA EKARRI DUTE IBILALDI BAT EGITERA
JOAN DIREN MENDIZALE ASKOK.

50 urte bete ditu Jakin aldizkariak

Urteurrenaz aritu gara hizketan Joan Mari Torrealдай zuzendariarekin

Jakin aldizkariak 50 urte bete ditu. Ospakizun urtea, baita orain arte egindakoa oroitzeko ere. Bere zuzendari Joan Mari Torrealдайekin mintzatu da NOAUA!.

NOAUA! 50. hamarkadan kaleratu zenuten lehen zenbakia, beraz.

Joan Mari Torrealдай. Urteurrenak 50eko hamarkadan kokatzen gaitu. Euskal kulturarentzat urte txarrak, Francoren altxamendutik eta II. Mundu Gerratik hamar urte igaro zirenean. Legitimitaterik ez izan arren, nazioarteko onarpena zuen Francoren erregimenak. Baina mugimendu berrien sorrera urteak ziren eta horien motore zen gerra bizi izan ez zuen seminarioetako belau-naldi berria. Kulturgintzan lan egin behar zela jabetu ziren. Debeku eta erre-presioagatik politikagintzan jarduterik ez baitzen. Horien emaitzetako bat Jakin da. Garai hartakoa da baita, adibidez, Arantzazun ospatu zen Euskaltzaindiaren lehen bilera.

N. Ordutik 50 urte igaro dira. Zer aldaketa jasan ditu?

J.M.T. Lehen urteetan, ikasleen aldizkaria izan zen. Donostiara etorritakoan, gaztediarena. Gaietan ere aldaketak izan dira; unean unekoak lantzen baitira. Aldiz, sorreratik edukiak ikuspegi askotatik landu dira eta beti Euskal Herriari zuzenduak izan dira. Garai hartako arazoari, euskara salbatzeko intuizioa ere ez da aldatu; euskara eta kultura uztartzea, hizkuntza moderno bat izateko prestaztea, euskara batua eta jasoaren aldeko apustua... Horrekiko leialak izan gara beti.

N. Urteurrenean nola ikusten duzu aldizkaria?

J.M.T. Jakin, mundua bezala, asko aldatu da. Azken hogeit bat urteetan mundua asko desideologizatu eta globalizatu da. Pentsamendu ahularen eta desinformazioaren garaian gaude.

Mundu berri honi nola erantzun da egun dugun arazoa. Gure beste etsai handia, idatziaren gainbehera da. Horregatik, Jakin bezalako aldizkari baten behar handiagoa dagoela ikusten dugu. Horri guztiari nola aurre egin erabakitzeke formula eta gaietan pentsatzen gabiltza. Gure egitekoa, informazio gogoetatu eskaintzea da.

N. Urteurreneko ekitaldiak antolatu dituzue?

J.M.T. Aldizkariko sortzaileak omen-du ditugu. Bestalde, jada, Euskadi Irratian Jakinek txoko bat du, Jakingunea. Hamar saioretan Jakinen historia eta bere gaiak landuko ditugu, aldizkaria bera ibilbide orri gisa hartuta. Jakinen bidez, Euskal Herriaren eboluzioa aztertuko dugu. Azkenik, bi ekitaldi potolo geratzen zaizkigu; azaroaren 7, 8 eta 9an Koldo Mitxelena izango diren 50. hamarkada aztertzeko mahai inguruak eta azaroaren 16an Miramar jauregian ospatuko den ekitaldi instituzionala. Bertan aurkeztuko dugu Jakinen historiari buruzko DVDa. Telebistaz eskaintzekoak dira. Harpidetza egiten dutenek, doan jasoko dute.

N. Harpidetza aipatuta, horren aldeko kanpaina egitera zoazte.

J.M.T. Kanpaina bat komunikabideetan egoteko dirua behar da baina horrelakorik ez dugu. Beraz, mailing kanpaina pertsonalizatua izango da. Girotzeko, euskal komunikabideei borondatez bertan parte hartzea eskatu diegu. Oso erantzun jatorra izan dugu. Harritu eta poztu gaitu. Girotze horren ondoren, deialdi publikoak egingo dira. Jendeari eskatuko zaio harpidetza egitea. Hartara, doan jasoko du harpidetza bera baino gehiago balio duen oparia: DVDa. Harpidetzak beharrezkoak ditugu, gure independentziaren bermea eta oinarri ekonomikoa baita. Kanpaina Durangoko azoka bitartean egingo da.



JOAN MARI TORREALDAI,
JAKINEKO ZUZENDARIA.

Anima daitezela harpidetza egitera.

N. Harpidetza egin nahi duenak zer aurkituko du Jakinen orrialdeetan?

J.M.T. Lehen aipatutako informazio gogoetatu hori. Gogoeta, kritika eta azterketa uztartzen dira. Gaiari beste buelta bat ematen zaio. Beti Euskal Herriari begira egiten dugu lan. Informazio soilarekin baino pentsamenduarekin zerikusia du. Euskal kulturaren produktu asko daude gaur egun; tartean, gurea. Guk geurean sinesten dugu. Zergatik eta zertarako euskaldun, galdera horri erantzutea ez da gutxi gaurko gizartean.

ARITZ GORRITI

50 urte zenbakitan


202 zenbaki.
30.000 inguru orrialde.
60.000.000 karakteretik gora.
2.400 lankidetzatza.
1.000 bat lankide edo idazle.

Usurbilgo lurretatik igaroko da Donostiako bigarren ingurabidea

Hasi dira Donostiako bigarren ingurabidea osatzeko lanak. Donostia, Errenteria, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbilgo udalerriak lotuko ditu errepide berri honek. 16,2 kilometro izango ditu eta ordaindu egin beharko da. 2009rako amaituta egongo da, eta egunero 50.000 ibilgailuk baino gehiagok erabiliko dutela aurreikusten du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Bilbo eta Behobia lotzen dituen A-8 autobidean, Donostia parean, zirkulazioa arintzeko helburuarekin egingo dute errepide berria. Gaur egun, egunero-egunero 85.000 ibilgailu inguru igarotzen dira Donostiako saihesbideetik. Intxaurren eta Aiete artean egun batzuetan 100.000 ibilgailu ibili dira eta %23 kamioiak dira. Diputazioaren arabera, autobide berriari esker ibilgailu gutxiago igaroko dira leku beretik.

Diputazioak proiektua aurkeztu zuenean 220 milioi euroko aurrekontua izango zuela esan zuen, baina urtebete geroago igo egin da, nabarmen, hasierako diru kopurua: 317 milioi euro gastatuko ditu Foru Aldundiak.



URTE AMAIERAN HASI NAHI DITUZTE LASARTE ETA ARITZETA LOTZEKO LANAK.

Hiru zatitan egingo da

Errepidea hiru zatitan egingo da. Lehenak, Errenteria eta Astigarraga artekoak, 8,4 kilometro izango ditu. Norabide bakoitzean hiru bide izango ditu, eta egunero 40.000 ibilgailu inguru igaroko direla aurreikusi dute. Bigarren zatia, 4,5 kilometrokoa, Astigarraga eta Lasarte-Oria artekoa izango da. Zati horretan errepideak, norabide bakoitzean, bi bide izango

ditu, eta, azterketen arabera, egunero 20.500 ibilgailu inguru igaroko dira. Azkenik, Lasarte-Oria eta Aritzeta arteko 3,3 kilometroak lotzeko, norabide bakoitzean bi bide izango dira, eta egunero, gutxi gorabehera, 12.000 ibilgailu igaroko direla uste dute. Bi zati horien lanak urte amaieran hasi nahi dituzte.

IMANOL UBEDA

Errepide berri honekin A-8 autobideko trafikoa arindu nahi da

Errepide berri honekin A-8 autobideko trafikoa arindu nahi da. Gauza jakina denez, autobide honen zirkulazioak etengabe egin du gora azken 25 urteotan. Gainontzeko errepideetan bezala. Gipuzkoan bertan, zenbait tokitan boskoiztu egin da trafikoa. Hortik datoz, neurri handi batean, hain ohi-

koak diren, auto-ilarak, istripuak...

Gainera, ez dirudi auto eta kamioi kopurua gutxituko denik. Instituzioek errepide berriak eginez eman nahi diote arazoari konponbidea. Donostia inguruko trafikoa arintzeko bi proiektu ditu esku artean Foru Aldundiak: Donostiako bigarren ingurabidea eta Urumeako autobia.

Egunero 40.000 mila ibilgailuk erabiliko dute

Gipuzkoako Foru Aldundiak uste du egunero Donostiako saihesbidea erabiltzen duten 40.000 ibilgailuk Donostiako bigarren ingurabidea erabiliko dutela errepidea amaitzen denean. Errenteria eta Astigarraga arteko zatiaren lehen harria jarri zuten duela bi aste. Zati horrek 8,4 kilometro ditu eta 164,9 milioi gastatuko dituzte. Kilometro bateko zubibidea egingo dute.

Luismari Ormaetxea, EA

“Ausardiaz heldu diogu etxebizitzaren arazoari”

Aurreko alean, Arantxa Manterola UHLko kidea elkarrizketatu genuen. Honakoan, Luismari Ormaetxea alkateta eta EAko kidea da aukeratu dugun solaskidea. Gutxiengoan hasi zuen legealdia EAk baina, urte hasieran, EAJ-PNVrekin gobernabilitate hitzarmena osatu eta ordutik lanak aurrera ateratzea errazagoa izan dela aitortu digu Luismari Ormaetxeak.

NOAUA! Legealdi hasieran, gutxiengoan agintzen zuen EA alderdiak. Orain, EAJ-PNVrekin batera ari zarete lanean. Zertan hobetu da udal gobernuaren lana?

Luismari Ormaetxea. Ia hiru urtez bakarrik aritu ginen Eusko Alkartasunakook udala gobernatzen eta garai hori bai izan zela konplikatu, batez ere hasieran, aurreko legealdietatik zetozen arazoei aurre egin behar izan genielako. Ezagunak dira Atalluko auzia, Sutegi... Kultur etxea zimendutan hartu genuen eta inauguratu arte gorabehera dezente izan ziren. Olarrondoko etxebizitzaren inguruko hitzarmenak ere aipatu behar dira. Aurreko korporazioak ez zuen gai hori itxita uztea lortu eta elkarrizketa ugari egin behar izan genituen jabeekin eta horrek nahikoa lan eman zigun. Zentzu horretan, beste alderdiek ez zuten lagundu eta EAJ-PNVk hasierako hilabete haietan ere oposizio gogorra egin zuen. Geroztik, elkarrizketa eta hausnarketa askoren ondoren, alderdi jeltzalearekin gobernabilitate hitzarmen bat sinatzea lortu dugu. Beste herri batzuetan kontrako bidea eman dute; elkarrekin hasi eta hautsita bukatu du koalizioak baina hemen behintzat oso posizio urrundetatik hasi ginen, baina orain elkarrekin gobernatzen ari gara.

Jende gehiago izanik, lanak banatzeko aukera izan dugu. Elkarrekin aritzeak gauzak erraztu ditu eta proiektuak bizia go garatzen ditugu orain.

Une honetan, ni gustura nago elkarlan honekin. Uste dut urte hauetan egindako konfluentzia-prozesua oso positiboa izan dela, bai udal kudeaketa mailan eta

baita herriarentzat ere.

N. Hiru urte eta erdiko epe honetan, zertan asmatu du udal gobernuak eta zertan ez?

L. O. Lan-talde kohesionatu bat lortu dugu zinegotzien artean. Lorpen nagusien artean, aurreko korporazioen nahasmenak konpondu ditugu. Aurreko urteetan egin ez zenari, etxebizitzaren arazoiari, benetan heldu diogula uste dut. Ez dakit arazo osoa konponduko den eta ziur aski askorentzat ez da biderik egokiena guk hartu duguna baina behintzat ausardiaz heldu diogu etxebizitzaren arazoiari.

Bestetik, kultur mugimendua aberastu eta berpiztu dugula esango nuke. Azken urteetan, nahikoa geldoa zegoen giroa. Sutegiren irekierarekin eta elkarteekin izan diren harremanekin asko piztu da kultur giroa. Ibon Beristain zinegotziak egin duen lana goraipatu nahiko nuke. Jendea dinamika berri batean jarri baitu.

Kunplitu gabe utzi edo zertan ez dugun asmatu? Tristuraz esaten dut, ezker abertzalearekin interlokuzio normalizatu bat ez dugu lortu.

“Etxebizitza berriekin herri giroa areagotu egingo da”

N. Etxebizitza arloan, apustu garbia egin duzue. Baina 1.000 etxebizitza erakitzeak ez al du herriaren desitxuraketa ekarriko?

L. O. Batzuk beldurra ikusten duten lekuan, beste batzuk aukerak ikusten ditugu. Zer da herri bat desitxuratzea? Porlanaz hitz egiten ari al gara? 1950. urtean bizpahiru kale zituen herriak, hura Usurbilen zen eta gaur egun duguna ez al da Usurbil? Nik uste dut herriak azkenean pertsona taldeak osatzen ditugula. Balore batzuk, tradizio batzuk, leku bat konpartitzen duen komunitatea gara.

Azkeneko 20 urteetan 5.000 biztanle ez gara mugitu. Horrek esan nahi du jendea zahartzen ari dela eta kanpora joan direnak herriko gazteak izan direla. Etxebizitza horiekin gazteek duten arazoiari konponbide bat jarriko diogu; gaine-



OPOSIZIOKO TALDEEN LANA OSO MUGATUA IZAN DELA DIO ALKATEAK.

ra, jende berria etorriko da herrira. Horrek, batetik, aberastasun ekonomikoa ekarriko du, jende gehiago, bertako merkataritza mundua piztuz edo areagotuz. Bestetik, herri giroa ere areagotu egingo da. Taberna giroa ere indartuko da. Ikastolako jarraipena ziurtatuko da. Orain dela urte gutxi kezkatuta geunden ume gutxi zeudelako. Une honetan, nola handitu pentsatzen gabilta.

Mila etxebizitza planteatzen direnean, egia da kopuruak beldurtzen duela pixka bat. Nik ere nire kezka ditut, nolako aldaketak izango dituen herriak. Baina uste dut apustu hori egin beharra zegoela eta guri egokitu zaigu egitea.

Legealdi hasieran, gestora moduko bat osatzea planteatzen zen. Guk une hartan gure ardura udal gobernabilitatea bermatzea zela uste genuen. Gestora hura onartu izan bagenu, agian urte hauetan egin den kudeaketaren erdia ere ez zen egingo.

Bestetik, udalak dituen lur publikoetan aurreko korporazioak babestutako etxebizitzarik ez zuen planteatzen, udal lurretan etxebizitza libre bakarrak. Horrek ere erreflexio bide bat irekitzen duela uste dut batzuen eta besteen asmoetan. Gure kasuan, hor da gure apostua; Olarrondoko eta Ugartondoko 350 etxe-

bizitza babestu jada abian dira. Legealdi honetan ez bagina gobernatzeko asmoarekin hasi, une honetan etxe horiek ez ziren mahai gainean egongo. 350 horietatik gehienak gazte jendeari iritsiko zaizkio.

LUISMARI ORMAETXEA

“UHLko bozeramale den Arantxa Manterolak duen meritua errekonozitu nahiko nuke. Baina bakarrik utzi dute bere zerrenda kideek”

N. Oposizioan egon diren alderdien jarrera nolakoa izan da?

L. O. PSE-EE eta PP alderdien oposizio lana oso mugatua da; batetik, kanpotarrak dira eta herriaren ezagutza oso mugatua dute eta gainera euskara menperatzen ez duten pertsonak dira. Alderdi sozialistaren kasuan, urteak pasa ahala, gero eta konfrontazio gehiago jo dute. Une honetan haiekin dugun interlokuzioa hutsaren hurrengo dela esan dezakegu.

Alderdi popularreko kidea, Manuel Michelena, pertsona arrazonagarriagoa da, eguneroko gaietan behintzat bai. Noski, gai politikoetan, oso posizionamendu urrunduak ditugu.

Mozio politikoak tratatu izan direnean, berak bere planteamenduak oso gordin agertu izan ditu. Kasu horietan, ez gaude batere ados PPren ikuspegiarekin.

Baina zinegotzi honi behintzat ikusten zaio interesa, ia batzorde guztietara etortzen da; PSE-EErekin hori ez da gertatzen; zentzu horretan PPkoak hitz egin eta lan egiteko aukera eskaini izan du.

N. UHLk aurkeztu dituen alegazio, mozio eta eskaera asko ez dira aintzakotzat hartu, erantzun gabe geratu direla, alegia. Zer dela eta?

L. O. Galdera honen aurrean, errekonozimendu batekin hasi nahi nuke. UHLko bozeramale den Arantxa Manterolak duen meritua. Meritua du zeren interesa eta disponibilitatea azaldu baitu udal batzarretara etortzeko eta parte hartzeko garaian. Nik gogoan dut, legealdia hasi bezain azkar, albiste batean edo *paskin* batean irakurriko nuena, non esaten zuten haien zerrendako zein kide arduratuko zen arlo ezberdinetaz. Asmo haiek haizeak eraman zituen, gai guztietan Arantxa Manterola egon baita. Nik hori bai errekonozitzen dudala, egiten ari den lana. Baina lan horretan bakarrik utzi dute bere zerrenda kideak.

Mozioei dagokionez, alkatearen edo udal korporazioaren legitimitatea zantzaz jarritz edo modu iraingarriak erabiliaz aurkeztu diren mozioak ez dira aztertu. Gure aldetik, haien partehartzea ahalik eta modurik normalizatuenean ahalbidetzen saiatu gara. Komisioetako ateak irekiak izan dituzte baina ez dira etorri. Arantxa Manterola ia pleno guztietara etorri ohi da. Hazienda batzordeko bizpahiru komisioetara ere azaldu da. Baina beste komisioetan ez dugu bere taldeko inor ikusi lanean.

“Alderdien Legearekin ez gatoz bat”

N. Alderdien Legeak udaletxetik kanpo utzi zuen UHL. Gauza bera errepikatuko dela uste al duzu?

L. O. Eusko Alkartasunako kide bezala, nabarmena da Alderdien Legearekin ez gatozela bat. Ez dugu ontzat ematen. Parte hartze demokratikoa mugatzen du. Gure ustez lege hori eraldatu beharko litzateke eta orain dela hiru urte kanpoan geratu ziren adierazpen politiko horiek barneratzeko modua eskaini beharko luke. Beraz, etorkizunari begira, izugarri gustatuko litzaidake herritar asko biltzen dituen espresio politikoa, ezker abertzalearekin loturikoa, aukera izatea aurkezteko eta beste alderdi guztiekin neurtzeko bakoitzak egindakoa eta proposatzen duena eta, horren arabera, hurrengo korporazioa osatzea.

Erabakitzeko ahalmena

N. Bake eta normalizazio prozesua *impasse* egoeran dela dirudi. Zure ustez, zeintzuk dira prozesua bideratzeko eman behar diren pausoak?

L. O. Prozesu hau martxan jarri zenean, ondo bereizten ziren normalizazio mahaia eta baketze mahaia. Nik uste dut, mahai batean eta bestean tratatu beharreko gaiak nahasten joan diren neurrian, nolabait moteltzen edo zailtzen joan dela bake prozesua. Ez naiz hasiko errezetak ematen baina kriterio bezala, elkarrizketa etsiezin bat izan behar dugu alderdi guztiok. Era berean, nik uste dut Euskal Herriari aukera eman behar zaiola bere arazoak konpontzeko, hau da, erabakitzeko ahalmena eta, horrekin lotuta, ez inposatzearen kriterioa kontuan hartzea.

Badirudi prozesu hau guztia lehendik ondo lotuta dagoela. PSOE, Estatua eta ezker abertzalearen artean gauzak nahikoa definituta daudela lehendik eta gidoi bat jarraitzen ari direla dirudi. Uste dut hanka-sartzea litzatekeela hori horrela izango balitz, eta EAK eta EAJ-PNVk osatzen dugun abertzaletasun instituzionala albo batera utziaz egiten ariko balira elkarrizketa horiek guztiak.

Udalak natur gune bat egin nahi du San Esteban bidean dagoen zabortegean

N. UHLk orriotan esan zuen lehen-go astean: Ingemar betelan berri bat egiten ari da legezko baimenik gabe.

L. O. UHLkoek dioten biltegiatze berri bat, guretzako zabortegearen itxiera da. Zabortege bat itxeko modu desberdinak daude. Egin daitekeena da itxi, kandadua bota eta beste kamioi gehiago botatzen ez utzi edo zabortege moduko batean uztea.

Guk modu txukun batean utzi nahi dugu zabortege hori. Etorkizunean izango duen forma hartzeko material

gehiago sartu behar da. Gure asmoa da zabortegea ondo ixtea, ondo bukatu eta gero toki hori natur gune batean bihurtzea. Natur gune ireki bat izango da.

Eusko Jaurlaritza proiektu honen jakitun da eta hainbat neurri zuzentzaile proposatu ditu, gainera. Horretan gabilza eta horretan dabil bilketa lan horiek egiten ari den enpresa. Gure helburua da, herriko zabortege hori modu txukun batean eta tratamendu egokiarekin ixtea.

“Esperientzia Eskolan” ekimenean izen emateko epea zabaldu da

Berrogeitamar urtetik gorakoei zuzendutako Esperientzia Eskolaren ikasturte berria hastear da. Mugabek antolatuta, Esperientzia Eskolaren ikasturte berria abian jarriko da laster, Lasarte-Orian, Donostian, Zarautzen eta Irunen. Lanean ari ez diren 50 urtetik gorako herritarrei zuzendutako ikastaroek osatzen dute eskaintza.

Garapen pertsonala sustatu, gaur egungo gizartea ulertzea ahalbidetzen duen prestakuntza eguneratua jaso, gizartean eragin ahal izatea edota harreman sozialak lantzea dira eskola horren helburu nagusiak.

Ikasleek helburu horiek ikasturtean zehar jorratuko diren hainbat gaien bidez eskuratuko dituzte; zuzenbidea, filosofia, osasun gaiak, giza harremanak, komunikaziorako trebetasunak... Horrez gain, hainbat hitzaldi, mintegi, bisita kultural edota eskolen arteko trukaketak antolatuko dira datozen hilabeteetan.

Urrian hasi eta ekainera arte luzatuko da ikasturtea, astean hirutan: astearte, asteazken eta ostegunetan, 16:00-19:00 artean. Ikasturte amaieran,



IZENA EMATEKO EPEA URRIAREN
15EAN ITXIKO DA.

diploma bana jasoko dute ikasleek.

Izen emateko titulaziorik ez da behar. Urte osoko matrikulagatik 180 euro ordaindu behar dira. Horietatik 30 euro matrikularekin batera ordaindu beharrekoak dira.

Matrikulazio epea, urriaren 15era arte zabalik dago. Hauek dira izena eman nahi duzuenok aurkeztu behar dituzuen agiriak: NAN fotokopia bat, nortasun agiriko tamainako argazki bat, matrikulazio orria beteta eta matrikula ordainketaren egiaztagiria. Izen ematea eta informazio gehiago: 943 371 616 telefono zenbakian edota Danok-kide Guraso Elkartearen. Blas de Lezo 11-13 behean (Lasarte-Oria).

Odol emaileak omenduko dituzte urriaren 22an

Urteetako borondate eta konstantzia eskertu asmoz, herriko hainbat odol-emaileek ikur eta diploma bana jasoko dute datoren urriaren 22an. Zubietan biltzekoak dira Oria beheko bailarako kideak.

Honako usurbildarrak omenduko dituzte; iaz, 25 aldiz odola emateagatik, Jone Agirrezabala, Isidro Arruti, Milagros Ikutza eta Vicente Palacios. 40 aldiz odola eman duen emakume bat ere omenduko dute; Soledad Navarro.

Hain zuzen, odol emaileek 25 aldiz edota emakumeek 40 aldiz eta gizonezkoek 50 aldiz odola ematen dutenean omentzen dira. Emakumeek hiru aldiz eman dezakete odola urtean; gizonezkoek, lau aldiz.

Odol emaileen elkarteak jakinarazi duenez, omenduak izango direnak eta oro har, odol-emaile diren guztiak eskertu nahi dituzte. Bestalde, jarrera hori herritar gehiagorengana zabaltzea espero dute.

Landa lurreko biztanleriaren inguruko azterketa

Usurbilgo baserri inguruko biztanleriaren bizi baldintzak ezagutzea da azterketaren xedea. Hori dela eta, Gizarte Zerbitzuetako langile bat landa lurretan bizi diren usurbildarrengana gerturatuko da egunotan.

Behemendik, Donostialdeko Landa Garapen Elkarteak eta Usurbilgo Gizarte Zerbitzuek sustatu dute azterketa hau; hilabete honetan hasi eta 2007ko martxora arte luzatuko da ekimen hau.

Bost zauritu aurreko igandean Agerialden izandako auto-istripuan

Bost usurbildar zauritu ziren joan den igandean, Arratzainbide kaletik zihoan auto batek Agerialde parean, goi-tentsioko dorre baten aurka jo ondoren. Bidaiari guztiak larritasun maila ezberdineko zauriekin Donostia Ospitalera eraman behar izan zituzten. Istripuaren ondorioz, Atxegalde auzoa argi indarrrik gabe geratu zen hainbat orduz.



ARGAZKIA: UDALTZAINGOA.

Umoreari buruzko hitzaldia

Umore onari eta irrifarrari eustea osasungarria da. Ondo egotearen adierazgarri izan dira. Askotan entzuten den depresioa edota antsietateari aurre egiteko botikarik onena medikuen esanetan. Irantzu Gabilondo psikologoak gaia ahotan hartuko du "Umore onaz gozatu eta mantendu" hitzaldian. Usurbilgo udalak antolatutako ekitaldia urriaren 16an izango da Sutegin, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Euskaraz eta doan.



UMORE ONA IZATEAREN GARRANTZIAZ JARDUNGO DU HIZLARIAK.

Saharar Errepublikaren ondare kulturala ikusgai Sutegin

Mendebaldeko Saharako lurraldearen bi herenak Marokok ilegalki okupatuak ditu. Bada, ordea, liberatua den lur zati bat.

DVD emanaldi eta hitzaldi batek liberatua dagoen gunen horretara gerturatu gaitu. Ikus-entzunezko proiektzioak euskal-saharar talde bat kultura babesteko egiten ari den lanaren emaitzak erakutsiko ditu.

Emanaldikoa osatzeko ikerketa taldeko Xabier Errastik kultur ikerketa horri buruz jardungo du.

Ekitaldia SEADen Lagunen Elkartek antolatu du. Hitzordua: urriaren 20an, ostirala, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Sutegin. Sarrera doan.



SAHARAREN ONDARE KULTURALA IZANGO DA AZTERGAI NAGUSIA.

Sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldia

Sagardo Egunaren Lagunak taldeak sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldia antolatu du urriaren 15ean. Goizeko 9:00etan frontoi atzetik abiatu eta Arratzain, Urdaira, Aginaga, Txokoalde eta Zubietatik igaroko da. Lau orduko ibilbidea Ametza Larrañaga usurbildarrak gidatuko du.

55eko kintoen oharra

Datorren urriaren 21ean, larunbatez, 1955ean jaiotakoak bilduko dira. Errasti sagardotegian ipini dute hitzordua. Izena urriaren 17rako eman behar da honako telefono zenbakietan: 943 365 318 (Angel)

943 366 879 (Jose Miguel)

Indiako Kun mendiari buruzko argazki proiektzioa

Fagor-Automationeko koordinatzaile Ander Arteagak Indiako Kun mendira egindako espedizioaren argazki proiektzioa eskainiko du Sutegin urriaren 18an, 18:00etan. Ekitaldia, Donostiako eta Buruntzaldeko Fagorreko Euskara Batzordeek antolatu dute.

**Zuen
publizitatea
hemen**

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kotxerik Gabeko Eguna ospatu genuen Udarregi ikastolan

Aurreko irailaren 22an eta Mugikortasunaren Europako Astearekin bat eginik, Kotxerik Gabeko Egunean parte hartu genuen Udarregi ikastolako ikasleok.

Eguraldiak lagundurik, bizikletak hartu, kaskoak jarri eta ikastolatik Txokoalderainoko gupil gaineko martxa egin genuen.

Udarregi ikastola



ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaúa.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo baserrien liburua jasoko duzu opari gisa.

Bazkide egin zaitez!

Noaúa!!

36 euro urte osorako

Izena: _____

1.Abizena: _____

2.Abizena: _____

Helbidea: _____

Herria: _____

Telefonoa: _____

E-posta: _____

Kontu korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Pilota elkarteak Gipuzkoako txapelketan

Andatzpe-Peña Pagola pilota elkarteak maila desberdinetako pilotariak Gipuzkoako elkartearen arteko txapelketan sartuta daude buru-belarri. Duela urte batzuk hartutako bideari jarraituz, eskupilotaz gain, palistak ere parte hartzen dute aurten. Esku pilotan kadete, jubenil eta nagusien mailan ari dira lehian, palaz, berriz, gomazko paleta eta larruzko paleta modalitateetan talde bana du herriko pilota elkarteak.

Gipuzkoako elkartearen arteko pilota txapelketa duela urte batzuk sortu zuen Gipuzkoako Pilota Federazioak. Lurralde honetako elkarte desberdinetako pilotariak nahiz palistek elkarren aurka jokatzeko dute hainbat mailatan banatuta eta gaur egun, Kutxa Saria modura ezaguna da. Momentu honetan ligaxka jokatzeko ari dira eta onenek finalak jokatzeko dituzte urtea amaitu baino lehen.

Andatzpe-Peña Pagola herriko pilota elkarteak eskuz binakako nagusien mailan ditu talde gehien, hiru hain zuzen ere. 1. mailan jokatzeko ari dira Jabi Santxo, Jon Artano eta Iñaki Iparragirre leitzarra. Lehiaketako lehenengo hiru partidak galduta zituzten usurbildarrek, baina pasa den asteburuan 21 eta 22 irabazi zuten Tolosako Aurrera Saiaz taldearen aurka Beotibar pilotalekuan.

2. mailan Enrike Huizi, Ibai Orena eta Ander Domingez donostiarrak dira Andatzpe-Peña Pagolako ordezkariak. Lau jardunaldi jokatu ondoren multzoko sailkapenean erdi parean kokatuta daude. Izan ere, bi partida irabazi eta beste bi galduta dituzte, azkena joan den ostiralean Bergaran (22 eta 17).

3. mailari dagokionez, Aitor Iturralde, Jon Olaizola, Unai Arozena eta Xabier Errastik osatzen dute taldea. Hauek ere lau partida jokatu dituzte eta oraindik ez dute garaipenik lortu. Azkena ostiralean jokatu zuten herriko pilotalekuan. Jonek eta Aitorrek 22 eta 12 galduta zuten Altzatarra taldeko pilotarien aurka. Hiru



talde hauek atsedena dute datorren asteburuan eta ez dute partidarik jokatzeko.

Jubeniletan 1. mailan ari dira lehian aurten herriko pilota elkarteak pilotariak. Momentu honetan Imanol Esnaola aginagatarra eta Iker Zinkunegi jokatzeko ari dira, Jon Esnal min hartuta baitago eta txapelketako lehen bi partidak irabazi bazituzten ere, larunbatean 22 eta 13 galduta zuten Hernaniren aurka. Asteburu honetan, berriz, Usurbilen jokatzeko dute Añorga 2 taldearen aurka.

Kadeteek osatutakoa da eskupilotako azken taldea. Xabi Santxo, Jokin Irastorza, Julen Etxeberria eta Josu Eguiguren dira usurbildarren ordezkariak 2. mailan eta lau norgehiagoketatik hiru irabazi dituzte. Azkena pasa den asteburuan, Eskoriatzako taldea 22-7ko emaitzaz gaitzuta baitzuten.

Erremintako txapelketari dagokionez, pala motzean eta gomazko paletan lehian da Andatzpe-Peña Pagola. Lehenengo modalitatean, Oidui Usabiaga eta Jon Arruti herritarrek jokatzeko dute 2. mailan eta bigarrenengoan Haritz Urdanpilleta eta Mikel Arroyo dira herriko ordezkariak. Hauek ere 2. mailan daude.

JOSU ARANBERRI

Aginagako IV. Pilota txapelketaren finala

San Praixku egunean, Aginagako pilota txapelketako finala jokatu zen. Erroizenea-Jauregi eta Urmeneta-Aranalde bikoteek jokatu zuten finala. Urmeneta-Aranalde bikotea aurretik joan zen markagailuan baina azkenean amore eman behar izan zuten. Zortzi tanto jarraian lortu zituzten Erroizenea eta Jauregi eta azkenean beraientzat izan zen txapela.

Eskubaloit taldeak bikain

Kadete, jubenil eta senior mailako mutilen taldeek pasa den asteburuan jokatu zuten lehenengo partida eta guztiek garaipena eskuratu zuten. Kadete mailako nesken taldeak Oiardon jokatzeko du larunbatean, Arrasateren aurka.

Jubenil mailako futbol taldea larunbat honetan Zubietan

Usurbil FTko Lehen Jubenil mailako taldeak Zubietako belar artifizialeko zelaian jokatzeko du larunbat honetan Zestoaren aurka. Emakumezkoen ligako taldeak, berriz, Donostian jokatzeko du Intxaurdiren aurka eta 1. Errejon mailakoak Elgoibarren aurka.

Joseba Tapia Sutegin arituko da azaroaren 3an

Hamalau kantu eder hango eta hemengo (eta denak bertako), atzoko eta gaurko, politik eta errealik”, Joseba Tapiak esana. Urriaren 18an aurkeztuko du prentsurreko bidez “Real Politik”, bakarka argitaratuko duen laugarren diskoa. Azaroaren 3an Sutegin eskainiko ditu kantu berrienak.

Esateko eta musikatzeko modu berriak eragiten ditu munduak. Zer kantatua dago. Tapiak horretan txertatu du bere soinua eta ahotsa.

Azaroaren 3an ostiralez, Sutegin aurkeztuko du diskoa kontzertu baten bitartez. NOAUA!ren kultur hamabostaldiarekin bat egingo du jaialdi honek. Datozen aleetan ordutegiaren eta sarreren berri.



“REAL POLITIK” DISKOA AURKEZTUKO DU SUTEGIN.

Urriaren 31n hasiko da Kultur Hamabostaldia

Denotariko ekitaldiak. Zakubete ekitaldi dakar urriaren 31n hasi eta azaroaren 11era arte luzatuko den NOAUA!ren Kultur Hamabostaldiak.

Landaberri Antzerki Eskolak prestatutako antzezlanak hasiera emango dio hamabostaldiari. Lasarte-Oriatik datoz emanaldia eskaintzera.

Euskal Herriko magorik ezagunak aho zabalik utziko ditu. Txan magoak, “Magiaz blai” ikuskizuna aurkeztuko du.

Eserlekutik mugitu gabe, munduari itzulia eman nahi izanez gero, Aitor Egileta herritarrak urtebetean egindako bidaia horretako hainbat irudi erakutsiko dizkigu.

Denboran atzera egingo dugu bertsoen bidez. Xabier Amurizak eta Mixel Ducauk “Mende erdi” emanaldian, azken 50 urteetako errepa-soa egingo dute bertso musikatuaren bidez.

Sutegi izango da ekitaldi horien guztien plazagunea. Datozen aleetan xehetasun gehiago.

Eguneko goardiako farmaziak

Urriak 12, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urriak 13, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Urriak 14, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Urriak 15, igandea
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Urriak 16, astelehena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urriak 17, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
Urriak 18, asteazkena

De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Urriak 19, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 20, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urriak 21, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 22, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN Zubieta-Donostia 7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)	(Gipuzkoa plazatik) 12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)
Donostia-Zubieta (Gipuzkoa plazatik) 7:15* / 9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45	JAI EGUNETAN Zubieta-Donostia 11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)
LARUNBATETAN Zubieta-Donostia 8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)	Donostia-Zubieta (Gipuzkoa plazatik) 11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Agenda !

Urriak 15, igandea

- Sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldia. 9:00etatik frontoitik abiatuta.
- Nafarroa Oinez Beran.

Urriak 16, astelehena

- "Umore onaz gozatu eta mantendu", Sutegin, 18:00etan.

Urriak 18, asteazkena

- Indiako Kun mendira espedizioa: argazki-proiektzioa. Sutegin, 18:00etan.

Urriak 20, ostirala

- Saharar Errepublikaren ondare kulturalaren DVD emanaldia. 19:00etan Sutegin.

Urriak 22, igandea

- 1955eko kintoen bilkura Errastin. Izena emateko: 943 365 318 (Angel) 943 366 879 (Jose Miguel)

Urriak 27, ostirala

- Kerobia "Rose Escargot" diskoaren aurkezpena. Sutegin, 22:30ean.

Urriak 29, igandea

- Merka2 bigarren eskuko produktuen merkatua. Dema Plazan, 10:00etan.

Literaturaren txokoa !

Sorginek badakite hegan egiten

Toti Martínez de Lezea, eleberri historikoen egile ezagunak Euskal Herriko sorginen gaia hartu du oraingo honetan, gai ezaguna zinez, baina aldi berean luzaro ezezagun egon dena. Liburu hau idaztean, XVI-XVII. mendeetan berebiziko garrantzia izan zuen gertaera hori, gaur egunera arte interes eta jakinmin bizia sortu duena, labur bada ere, ezagutaraztea izan du egileak helburu.

Euskal Herriko kontaerak betebeterik daude sorginez: sorginek badakite hegan egiten, deabrua gurtzen dute aker baten itxuran, haurrak hiltzen dituzte, ekaitzak eragiten




eta uztak hondatzen. "Akelarre" izenak euskararen mugak gainditu eta beste hizkuntzetara zabaldu da, sorginen bilkurak adierazteko. Euskal kulturen testigantza asko daude sorginetan sinesten zela frogatzen dutenak, baina zer da, gai honetan, fantasiaren emaitza eta zer egia?

Liburu honetan sorginei buruzko lekuak, esaerak, ohiturak, elezaharrak eta sineskeriak biltzen dira; Euskal Herriko sorginen historiaren berrikusketa bat eskaintzen da, euskal matriarkatu ezagunaren oinarria den Ama Jainkosa baten sinestetik abiatu eta XVII. mendean batez ere Nafarroan eta Lapurdin herri osoak mehatxatu eta ehundaka pertsona sutan bizirik erretzera kondenatu zituzten esespen izugarrietaraino.

Igandean, Beran dugu hitzordua

Igande honetan, hilak 15, Nafarroa Oinez ospatuko da Beran. Labiaga Ikastolari egokitu zaio lanean jardutea. Iruñeko Skalarriak taldeak egin du "Baietz

oraingoan" izeneko abestiaren musika; igandean behin eta berriz entzungo dugun kantua. Letra, ordea, Estitxu Arozena bertsolariak egin du.



ETXEBIZITZA

- Usurbilen logela bat alokatzen da. 679185102.
- Usurbilen hiru logelako etxe bat alokatutzen da. Abala eskatuko da. 649261704.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tl: 630 032 779.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Galtzaragañan 18,95 metro karratuko garaje itxia salgai. Interesatuak deitu: 943361219.
- Garaje itxita salgai, 18 m2. Merkea. Puntapax bidean. 610 29 18 64 (Carlos).
- 49 zm-tako Honada moto bat daukat salgai. Kondizio onetan eta modu onean. Interesatuak deitu 943364554 telefonora
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Bi emakume eskaintzen dira goizez bi orduz lan egiteko. Deitu 659879040 / 943 365 737 telefonora.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da, orduka zein egun osoz. 610 669 335.
- Asteburuan lan egiteko prest nago. Larunbat arratsaldeetan, igandeetan eta astelehen goizetan. 686 120 402.
- Esperientzia duen neska umeak zaintzeko prest. Edozein ordutan lan egiteko. 660 041 361.
- Udan umeak zaintzeko prest nago. 687 651 605.
- 17 urteko mutil bat naiz eta ekainetik iraile-ra bitartean Usurbil eta inguruetan gustora lan egingo nuke. Eskaintzen bat baduzu deitu 650491552.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientziadunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularak ematen ditugu euskaraz zein gaztele-araz. 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.

- Oporretako, ospakizunetako, edozein mota-tako bideoak montatzen dituen profesiona-lala eskaintzen da. Telefono zenbakiak: 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Olarrondo jatetxean astebukaeratan barran eta komedorean lan egiteko pertsona bat behar da. 943360376.
- Pertsona bat behar dugu etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. Lau orduz, goizeko 7:30etik 11:30era. Telefono zenbakiak: 943 37 06 91 (ilunabarrean).
- Jatetxe batean garbitasun lanak egiteko emakume bat behar dugu. Interesatuak deitu 943 36 27 13.
- Arratsaldez etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabiltza 645403905.
- Zarautzko malekoian udan lan egiteko zer-bitzariak behar dira. 661972670.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Hiru hilabeteko hiru zakurkume dauzkagu oparitzeko. 943 36 33 06.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685757962.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna kondizio honetan daukagu salgai. 676453176.
- Patri jatetxe inguruan urrezko (urre koloreko) pultsera bat aurkitu da. Galdu duenak udaltzainetan galde.
- Tren geltoki inguruan Nokia telefono mugikor beltz bat aurkitu da. Galdu duenak udaltzainetan galde dezala.
- Snow egiteko tabla bat fihazioekin salgai. 679185102
- Terrenoa landatzeko erosi nahi dut, edifikatzeko ez. Tl: 943 36 11 09.
- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. Emaizta profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. 667 694 049.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila erosiko nuke. 605 72 48 24

Txerrimunik ordainetan !

Zorionak Amaia!

Igandean ospatuko dugu eta ez ahaztu pastelak ekartzea. Eluxka, Xabi, Koro eta denon partetik zorionak eta muxu bat!



HILDAKOAK

Maria Teresa
Urdanpilleta Aristimuño
Urriaren 3an hil zen 89 urterekin. Zubietan.



Luis Rodriguez Gallardo
Urriaren 4an hil zen 79 urterekin. Santuenea.



Petra Esteban Pellejero
Urriaren 7an hil zen 88 urterekin. Kaleberri.



Oharrak, Txerrimunik ordainetan doaneko atalak dira

Datorren alea: urriak 20.

Zorion-agurrak urriaren 16a baino lehen ekarri edo bidali.
erredakzioa@noaua.com

NOAUA! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20170 Usurbil

Telefono interesgarriak !

• Udala.....	943 37 19 51
• Udaltzaingoa.....	943 36 11 12
• Obrak eta Zerbitzuak	943 37 01 78
• Eusko Tren.....	943 47 09 46
• Anbulategia.....	943 36 20 13
• Udarregi Ikastola.....	943 36 12 16
• Udarregi (Agerialde).....	943 36 38 95
• Haur Eskola (Kalezar).....	943 37 40 61
• Oiardo kiroldegia.....	943 37 24 98
• Zumarte	943 37 15 94
• Etumeta euskaltegia	943 37 20 01
• Taxi geltokia.....	943 36 21 78
• D.Y.A.	943 46 46 22
• Gure Pakea.....	943 37 32 28
• Gure Elkarte.....	943 37 17 51
• Arrate Egoitza.....	943 36 63 40
• Bake epaitegia.....	943 37 23 36
• Oa farmazia.....	943 37 60 76
• Iturralde farmazia.....	943 36 33 95
• Zubietako Batzarra.....	943 37 20 77
• Argindarra (Iberduero).....	943 47 09 76
• NOAUA! aldizkaria.....	943 36 03 21
• Ertzantza.....	112
• Suhiltzaileak.....	112
• Larrialdiak.....	112
• Anbulantziak.....	112

JOSE AZPURUA
UNANUE

TELATUAK • FATXADAK

Pintura kalera +54, Iruñerria-Oñati
943 36 12 83
Oñati kalea 14, Oñati
943 69 68 02

URDANTZI

943 32 72 64
649 43 54 75
649 43 54 76

ERRAZKIN

943 372 679
943 365 125
629 420 565
649 435 470
urki-mitxos@euskaltelnet.net

Josue
Aranzazistroki

943 360 550
606 372 105
JOSUE@EUSKALNET

Antonio
URRUZOLA

Tel: 943 376 415
Faxa: 943 360 510
Astasuain Industrialdia, 3

BEREZIARTUA
S.L.

egurra eta
egur-aluminiozko
leioak - eskaierak
Aginaga 943 371 571

BARRENETXE

Solkamendi Arriagi, Iruñea
Tel. 943 362 664
Faxa 943 374 002
Barron Elise Kalea
ZUBIETA

Javier
Orbegozo

Gasa-berokuntza
659 602 789
Erreka txiki 13, Bask

Jose txo
Ikatzeta

687 951 225

Lataillade

gasa, berogintza
klimatizazioak eta
mantenimendua
609 888 021

portularume

Bainuko altzairuak
Manparak
943 364 637

JOSEBA
ARANGUREN

943 830 072
659 883 912

andoni
MARCOAK

605 702 517
Arrantzale p. 8-20

fernando
PINTURAK

enpapelaketak
lurzoruak...
943 366 019

IZAGIRRE

943 365 095
609 068 111
Gaz 426, ETXEA 37
KALEZAR

ARGILAN

Jose Luis Borda Zugasti
industria instalazioak kontak-keak
943 361 380
629 272 859
Borda Berr 5 lioia

ofizioen gida

IGELTZERITZA

AROSTEGIAK

ITURGINTZA

PINTURAK

ELEKTROKITEA

Gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321 • publizitatea@noaia.com

➤ **www.noaia.com** ➤
usurbildarron zerbitzura

